

## Funtsezko baliabideak:

### **BALIABIDE FISIKOAK:**

- Ekoizpenerako: hologramak eraikitzeko piezak, kableak, herramientak, makinak eta gainerako tresneria;
- Kudeaketa osoa egiteko: eraikin bat, enpresa bertan instalatzeko. Eraikin horretan jardueren arabera distribuzioa egingo genuke. Eraikinean funtsezko lekuak ekoizpenerako toki bat, zuzendaritzarako gelak, parkina, kargak eta deskargak egiteko espazioak eta biltegia izango dira.

### **BALIABIDE INTELEKTUALAK:**

Gure zuzendaritza-taldea lau pertsonen osatzen dute. Taldeko bakoitza enpresaren funtzio batez arduratuko da:

- Finantza arloa: Finantzazioa bilatzeaz eta diruzaintza kudeatzeaz arduratuko da. Hologramen piezak eta materiala kantitate handietan erosiko dugu eta arlo horretan dauden gastuak kontrolatu eta egon daitezkeen arazoak konpontzen saiatuko da. Pertsona hau, zuzendariarekin batera enpresako bankuko kontu korranteetan dagoen diruaz arduratuko da.
- Marketing arloa: Gure enpresa txikia izango da hasieran. Baliabideak bilatu beharko ditugu gure enpresa handitzen joateko. Publizitatea da guk nahi dugun bidea, horrela bezeroak (pertsonak) kontziente izango dira guretzat eta aplikazioa deskargatu edo dendetako hologramak probatu ahalko dituzte. Horretarako, pertsona bat egongo da arlo honen kontrolpean, gure enpresaren ezagutza handitzen doalaz arduratuko dena.
- Zuzenbide arloa: Enpresaren zuzendaria izango da eta enpresa gidatuko du. Zuzenbidez arduratuko da eta enpresa osoaren koordinatuko eta kudeatuko du. Hornikuntza, ekoizpena eta salmentak ondo doazela ikusiko du.
- Negoiazioak: beste enpresekin harremanetan jarriko da eta enpresekin negoziatuz gure enpresako gastuak murrizten saiatuko da eta biderik hoberena topatuko du enpresa aurrera eramateko. Horrenbestez, ekoizpenak gora egin dezake eta gure produktibitatea hobetu. Komeni zaigu enpresekin harreman onak izatea, enpresa txikiak handitzen joateko.

### **GIZA-BALIABIDEAK:**

Gure giza baliabideak enpresako langileak izango dira:

- Hologramak eraikiko dituztenak

- Ekoizpenaren kontrola egingo dutenak
- Enpresaren segurtasunean lan egingo dutenak
- Harreman publikoetan jardungo dutenak
- Hologramak dendetaraa eramango dituztenak
- Aplikazioa kontrolatuko duten langileak
- Enpresaren garbitzaileak
- Informatikoak
- Zuzendaritza-taldea

### **FINANTZA-BALIABIDEAK:**

Finantzak egiteko dirua beharko dugu. Hasieran enpresak ez du dirurik izango, beraz sortzaileok hasieran diru-kantitate bat jarri beharko genuke. Gure dirua ez da nahikoa izango, beraz bankuan eskatuko beharko genuke mailegua. Maileguarekin diru kantitate adina izango genuke enpresa sortzeko. Behin enpresa sortuta, pixkanaka irabaziak izango genituzke. Irabazi horiekin, enpresa sortzen dugunean erabilitako mailegua itzuliko genuke. Dena ondo badoa, enpresa multinazionalak eta arropa dendak gure bezero bihurtzen badira, gaur egungo gazteekin batera, bezero nahiko izango genituzke eta haiei esker diru-sarrerak handituko lirarteke. Horrek enpresari holograma gehiago ekoizteko inbertsioak egiteko aukera emango lioke eta baita teknologia berriak sortzeko ere, aplikazioan esleitzeko. Pixkanaka inbertsioak handitzen joango lirarteke eta enpresak produktibitatea hobetuko luke.